

BAZTANGO IKASTETXE PUBLIKOEN GILTXAURDI UDAL KIROL INSTALAZIOKO IGERILEKU ESTALIA ERABILTZEKO ESKAERA. 2022/2023 IKASTURTEA.

Ikastetxea:				
Arduraduna:		Tel.:	Helbide elektronikoa:	
Gela	Pertsona kopurua taldean	Eguna	Orduetgia	Datak (hasi/akitu)

ESKAERA:

1. Epea: 2022ko irailaren 1etik 8ra.
2. Aurkezteko tokia: Baztango Udaleko erregistroan.

1. ERABILTZEKO BALDINTZAK:

01. Erabiltzeko egutegia: 2022ko urriaren 1etik 2023ko maiatzaren 31ra.
02. Erabiltzeko ordutegia:
 - As.-az.¹-or.²: 10:00-12:45
 - ¹ Lehentasuna landa eskolek
 - ² 10:00-11:45
03. Udalak beretzat gordetzen du kirol-instalazioak erabiltzeko emakida, kasu bakoitzean gertatzen diren inguruabarren arabera.
04. Udalak bere gain hartzen du ordutegiak eteteko eta/edo egokitzeko eskubidea, sortzen diren beharren eta inguruabarren arabera.
05. Instalazioa erabiltzeko araudia bete behar da.
06. Erabilera-baldintzak ez betetzea, esleitutako ordutegian instalazioa ez erabiltzea, erabilera araudia ez betetzea eta Udalaren aginduak ez betetzea izanen da zehapen-prozedura hasi eta emandako baimena eten ahal izateko arrazoia, bai eta etorkizuneko eskaeretan erabilera-baimenik ez emateko ere.
07. Gorputz-hezkuntza irakasgaiko igeriketa-eskolak emateko baino ez da erabiliko igerilekua, eta inoiz ez bertzelako jardueretarako.
08. Eskolak putzu handian emanen dira.
09. Talde bakoitzean gehienez 20 ikasle parte hartuko dute. Gela berean 20 ikasle baino gehiago badaude, gelako ikasle guztiak batera sartu ahal izanen dira, 25 pertsona gehienez ere. Kasu horretan, taldeak ikastetxeko bi irakasle izan beharko ditu, gutxienez, eta horietako batek Gorputz Hezkuntzako irakaslea izan beharko du nahitaez.
10. Ikastetxeak astean gehienez ordubete eskatu ahal izanen du talde bakoitzeko. Ordu horretan aldageletako denbora sartzen da.
11. Ikastetxe bakoitzak, gehienez ere, kale bat eskatu ahal izanen du orduko.
12. Instalazioan baimendutako jarduerarako beharrezkoak diren elementuak bakarrik sartu ahal izanen dira
13. Eskolak ematen dituen pertsona ikastetxeko Gorputz Hezkuntzako irakaslea izanen da eta igeriketa eskolak emateko gaitasuna izanen du.
14. Ikastetxea izanen da instalazioan egiten dituen jardueren arduraduna, bai eta jarduera horietan parte hartzen duten ikasle eta irakasleena ere.
15. Ikastetxeak ziurtatzen du instalaziora sartzen diren pertsona guztiek eskola-asegurua dutela, eta osasun-laguntza eta erantzukizun zibila dutela.
16. Ikastetxearen erantzukizuna da instalazioa garbi eta baldintza onetan entregatzea.

17. Ikastetxeak igerilekua eta aldagelak erabiltzen ahal izanen ditu.
18. Eskolak emateko behar den materiala ikastetxeak berak eman beharko du.
19. Instalaziora sartzeko, jantzi eta oinetako egokiak erabiliko dira.
20. Ikastetxeak instalazioaren arduradunari jakinarazteko betebeharra du (tel.: 948 45 23 01), bai eta kirol-teknikariari ere, gutxienez 48 ordu lehenago, aurreikusitako erabilerarekiko edozein aldaketa gertatzen bada.
21. Instalaziora sartzen diren pertsona guztiek bainujantzia, txanoa, txankletak... eraman beharko dituzte.
22. Eskatzaileak Baztango Euskararen Ordenantza bete behar du.
"41. artikulua. Baztango Udalak, udalerrian egiteko, diruz laguntzen dituen kultura, kirol edo bertzelako jardura eta aktibitateetan, bai eta haien idazki, iragarki nola karteletan ere, euskarari lehentasuna eman beharko diote antolatzaileek.
42. artikulua. Baztango Udalak euskara erabiltzeko gonbita egingen die udal instalazioak eta materiala erabiltzeko eta besta egunetan barrakak paratzeko baimena eskatzen dutenei. Horrekin batera, Udalak jakinaraziko die, behar izanez gero, Udaleko Euskara Zerbitzuaren hizkuntza aholkularitzaz baliatzen ahal direla."
23. Ikastetxeak eskabide-orri honetan zehaztutako erabilera-baldintzak onartzen ditu..

Sinadura eta zigilua

Baztan, 2022ko irailaren ____an